



## Euskahalduntzea

### *Feminismoari hartuak*

Feminismoa, azken hamarkadetan, gizartearen gaineko pentsamendu kritiko eta alternatibo teoriko eta praktiko paradigmatico nagusia bihurtu da, nola, garai batean, demagun marxismoa edo sozialismoa.

Feminismoa gizarte berdinzale, osasungarri, justu eta bizigarriago baten proposamen integrala da, inklusiboa da, produkzioa indar eta sistemaz gainera, erreproduzio sistema eta pertsonak erdian jartzen dituelako, hain zuzen kapitalismoak eta baita marxismoak ere bazter uzten dutena. Bazterrak erdira dakartza. Eta horretarako indarkeria bakoitzari bere izenez deitzen dio eta menperakuntza bakoitzaren azpian dagoena xehe-xehe deseraikitzen du.

Feminismoak zer dakarkigu hiztun minorizatuaren planora? Zer ikasi dezakegu? Zer zaigu baliagarri?

Feminismoaren dekalogo bat hizkuntzara aplikatua:

**1. Boterearen irakurketa zolia.** Botere harremanen disezio oso bat. Boterea ez da goitik beherako soilik, zeharkakoa ere bada, eta gutako bakoitza da menperatzaile eta menperatu. Eta horrezaz gainera, boterearen praktika sistemikoa, sistema kapitalista patriarkalaren andamiajeak azaleratzen ditu.

- Botere eta esplotazio harremanak bersortzeko dauden modu, baldintza eta baliabideak aztertu. Non bersortzen da genero diskriminazioa? non hiztun desnormalizatua?
- Bestelako botere banaketa bat proposatzen du.
- Boterearen kontzeptua berpentsatzera garamatza.
- menpekoen hausnarketa bultzatzen du, erabakiak hartzeko eta komunitatearekiko, publikoarekin loturen beharra bultzatzen du.
- Publiko / pribatu.

*“Euskahalduntzea. Feminismoari hartuak”*

Lorea Agirre Dorronsoro



**2. Pribilegioak.** Botereak pribilegioak dakartza. Aulki jokoa da. Esan nahi du emakumeak jartzeko gizonezkoak kendu behar direla. Euskara sartzeko hizkuntza hegemonikoa kendu egin behar dela.

- Kuotak. Akaso zortzi laguneko bertso saioa baten bi bertsolari neska kuota bat da? Edo gutxienez neska bat sartu beharra kuota betetzea da? Eta zortzi gizonezko direnean taula gainean ez al da kuotarik betetzen? Alegia, gizonak direlako ez ote daude oholtza gainean? Nahiz eta arazoa gehiago den ideologikoa kopuruzkoa baino. Paisaia eta soinua alda ditzagun, aniztu, aberastu. Hizkuntzatik beste hainbeste. Hizkuntza eta kultura.
- Halaber, gizonak interpelatu ditu eta pribilegioak agerian utzi ditu. Hizkuntza hegemonikodun elebakarrak interpelatu behar dira, pribilegioak agerian utzi. Demokrazia eta justizia auzi bat da.

**3. Desnaturalizazioa.** Desbiologizazioa dakar, desnaturalizazioaren teoria eta praktika. Deseraikitzea. Ez gara jaiotzez, ez gara aurrez. Ez gara berez, eta horrenbestez aldaezin eta betirako. Ez gaude kondenatuta. Nahi duguna izan gaitezke. Identitate aldaketa. Eraldatzeko gaude. Egiten duguna gara.

- Hizkuntza zapalkuntzaren eta sexu/genero zapalkuntzaren estrategia/tresna berdintsuak: naturalizazioa
- Azpiratze egoeran zaude emakume zarelako: berez dituzun ezaugarriek eta horren arabera betetzen dituzun eta ez dituzun funtzioek botere sarean hor jartzen zaituztelako
- Azpiratze egoeran zaude euskaldun zarelako: euskarak berez dituen ezaugarriek eta horren arabera betetzen dituzun eta betetzen ez dituzun funtzioen botere sarean hor jartzen zaituztelako
- Euskara eta emakumea, biak dira, bada, ez-zibilizatuak, arrazionalitatetik kanpokoak, etxeakoak, emozionalak, zaintza, kontu txikiatarakoak... Plazarako euskara ez den beste hizkuntza bat behar duzu. Plazarako emakumezkoa ez den beste ahots bat behar duzu.
- Naturalizazioa da azpiratze estrategia/tresna irmoenetakoa, azpiratuaren barne logikan erabat itsasten delako.



- Minorizazio prozesu berdinak dira: hegemoniak esaten du nor eta zer zaren. Berak definitzen zaitu berak kontrolatzen duelako boterea, ekonomia eta baita hitzen esanahia ere.
- Ahotsik gabeko bi subalternitate.

## 5. Justizia soziala.

Identitate kontu bat zena herritarren eskubide eta askatasunetara ekarri du feminismoak.

Aukera berdinak baino aukera gehiagoren printzipioa. Eskubideak kapritxo ez badira izango jasoak behar dute legez, eta, indarrez, maitasunez eta koherzitiboki aplikatuak. Bestela ez dira eskubide.

- Justizia soziala bada, ez da emakumeen kontua, ez da euskaldunen kontua, herritar guztiena baizik. Demokrazia kontua da.
- Eskubidea bada, eta ez esentzia, argi izan une oro borrokatu beharko dela, atzera eta aurrera egin beharko dela. Relazionala dela (hizkuntza bereziki), eta konparazioan doala, eta horrenbestez atzera eta aurrera egin daitekeela eskubide horietan eta horrenbestez borrokara, lokatzetara jaitsi beharra dagoela, bertan goxo geratu gabe, eta hizkuntzak (feminismoak berdintasuna) hitzak baino zerbait gehiago eskaini beharko duela eremu ez 'identitario' klasikoetan (beti eskaini izan du, bide batez esanda).
- Tresna eta ekintza ildoak iradokitzen dizkigute: arnaguneetatik hasi, ikusgarritasuna, sustapen politikak, deseraikitzeak, isiltze/boteretze kolektiboak (Lutxo Egia)
- (Gipuzkoako Diputazioak 'Hizkuntz berdintasunaren saila' eratzea bada zantzua)

## 6. Intesekzionalitatea edo eremu-artekotasuna.

- Menperankuntza bikoitza edo hirukoitza:
- **Angela Davis:** emakumea, arraza, klasea
- **Maria Merce Marcal:**

Divisa

A l'atzar agraeixo tres dones: haver nasent dona, de classe baixa i nació y llengua orimida.

I el térbol atzur de ser tres voltes rebel



*Menturari hiru dohain zor dizkiot: emazte sortu izana, klase sozial apalekoa eta herrialde eta hizkuntza zapaldukoa.*

*Eta hiru bider errebelde izateko sasiko oinordetza*  
1952

**7. Artikulazioa.** Borroken, eremu, praktika, teorien artekoa

**8. Boteretzea.** Lau urratsak: jakin, jabetu, ahaldundu, boteretu.

**Boteretzea: Kontzeptu sozio-politiko bat da.**

- Kontzientziazioaren ohiko definizioetik harago doa.
- Parte hartze politiko formala aberastu eta gantitu egin du
- Eskubide urraketa eta testuinguru politiko eta kultural orokorra aztertu, eta norbanakoarengan eta taldearengan eraldaketan zerikusioa duten eta aldaketa bera ozpotatzen duten prozesu psikologiko, politiko, kognitibo eta ekonomikoak hartzen ditu aiantzat.
- Ez da legeak aldatze soilak.

Euskarak botere politikoa behar du, eta emakumeek ere bai.

**9. Gorpuztu.**

Gorputz sozial eta gorpuz fisikoa. Gizartearen kontrola, fisionomia. (Euska)ahalduntze eskolak: ze ahots, ze jarrera, ze pausaje, ze leku, ze ordu, ze lelo... (Lutxo egia: ezleku, ezordu, erritmoz bestera, leloz kanpora, normalaz kanpora...). Zentzu komunaren monopolioa hautsiz. Normala dena...

- *Nolakoa litzateke euskahaldun izateko behar dugun gorputz lanketa? Korrika, Ibilian, Oinez, kilometroak egiten, manifestan... ze sentimendu moda, ze gorputz, ze estetika, ze kontrol, ze askatasun...*
- *Nolakoak lirateke euskal gorputz politikoak? Mari Luz Esteban.*



**10. Euskaldun gisa ahaldundu herritar gisa ahalduntzeko.**

Eta bitartean... Hizkuntza hizkuntza hutsagatik?

Euskal hiztun izateak gizarte harremanen begirada kritiko eta ez-hegemoniko bat ekarri behar digu?

Lorea Agirre Dorronsoro